



# KIROL ASTEAK ASTEASUN ETA ALEGIAN

Alegian gaur 'Shisha Pangma, bide britaniarra' proiektzioa izango da, eta Asteasun gimnastika erritmikoa eta judoa >2

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Asteartea  
2010-06-01

VIII. URTEA 2.015. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



49 lanbide desberdin ikusi ahal izan ziren Leitzako plazako azokan herenegun. s. GOMEZ

## 100 ESKULANGILEREN TOPAGUNE IZAN DA PLAZA 32. ALDIZ

**LEITZA** Herritarrak Kultur Aroan murgilduta dauden honetan, artisauen azoka bereziarekin gozatzeko aukera izan zuten herenegun >3



Donostiak irabazi zuen Gipuzkoako Partaidetzako Txapelketa Herrikoia. HITZA

## 80 emakume inguru Emakumea Pilotari Egunean

**IRURA** Ikasturteari amaiera emateko jaia izan zen larunbatean; partidak ere jokatu zituzten >6

**ANDER ALTUNA** TXIRRINDULARIA

«Euskadiko selekzioak kanpora joateko aukera eman digu»

**ZIZURKIL** Caja Rural taldeko txirrindulari gazteak emaitza bikainak lortu ditu denboraldi honetan >4



# TOLOSALDEA

GOIMAILAKO L.H.  
INSTITUTUA



ziklo guztiak  
euskaraz

AURREMATRIKULA MAIATZAREN 31etik EKAINAREN 11ra

### GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikako Produkzio Programaketa
- Informatika Sistemen Administrazioa
- Administrazio eta Finantzak
- Instalazio Termikoko eta Fluidodun Mantentzea
- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak
- Metal Eraikuntza

943 65 11 47 • www.tolosaldea.com

Mugikorrean informazio gehiago  
Mezu bat bidali: TOLOSALDEA idatziz 5533ra



## Dantza eta musika Leidorren

**TOLOSA** • Eduardo Mokoroa Udala Musika Eskolak, 16. Musikaria antolatu du. Aste osoko ekitaldiak izan dira eta azkena herenegun izan zen Leidor Antzokian. Udaberri

dantza taldeko dantzariak eta Musika Eskolako ikasleen banda izan ziren musika eta dantza uztartzen zituen emanaldiko protagonista nagusiak. *SARA GOMEZ*



## Oria Elkarteko sariak

**VILLABONA** • Oria Merkatarien Elkaratek otsaileko eta martxoko zozketetako zenbaki sarituak atzo eman zituen. Otsaileko 150 eurotako sari bat Ana Garciak eskuratu

zuen eta Martxoko beste 150 euroko saria, Izaskun Errondosorok. Mari Karmen Iztueta lehendakariak banatu zituen. Hala ere, bi zenbaki saridun ez ziren agertu. *E. MAIZ*

**Kirola** » Alegian eta Asteasun Kirol Astea dute. Batean eta bestean, kirola eta kirol munduaz gozatzeko aukerarik bada.

# Alegian eta Asteasun ospatzen ari diren kirol asteetan ekitaldi ugari

### ENERITZ MAIZ

Asteasuko Kirol Asteak, aurtengoa zortzigarren urtea du eta Alegia-koak aldiz, seigarrena. Alegiarrek, pasa den larunbatean hasi zuten 3x3 III. Saskibaloitxapelketarekin. Igandean berriz, mendiirteera egin zuten Baldegobiara, hau da, Valderejo aldera. Gaur, Koke Lasaren proiektzioa izango dute Kultur Etxean eta ostiralean eta igandean ere, kirola izango da nagusi.

Asteasuarrek aldiz, atzo eman zioten hasiera eta igandea bitarte egunero kirolari lotutako ekitaldi ezberdinak izango dituzte. Atzokoan, Errealeko bi jokalaririk izan ziren hitzaldia ematen. Datozen egunetan, gimnastika, judo, patinak, mahai tenisa, futbola, saskibaloia... izango dituzte. Igandean, kiroldegiko instalazioak zabalik egoteaz gain, Ciclo Indoor saioa izango da eta ekainaren 4a baino lehen izena eman beharko da.



laz, Alegiako Kirol Astea, motorrari buruzko eta kart krossari buruzko informazioa eman zuten. *N. URBIZU*

### » ALEGIA ETA ASTEASUKO KIROL ASTEAK

#### Alegiako VI. Kirol Astea Gaur

■ **19:30ean.** *Shisha Pangma*, bide britainiarra, proiektzioa Koke Lasaren eskutik.

#### Ekainak 4, ostirala

■ **18:15ean.** Gimnastika erritmiko erakusketa Kultur Etxeko bartzar aretoan.

#### Ekainak 6, larunbata

■ **10:00etan.** Ginkana herriko plazan.

#### Ekainak 12, larunbata

■ **21:00etan.** 2009-2010 futbol denboraldi amaierako festa. Zahargardoa (sagardoa eta ardoarekin) herriko plazan. Intxurre K.K.E. antolatuta.

#### Asteasuko VIII. Kirol Astea Gaur

■ **16:30ean.** Gimnastika erritmikoko erakustaldia izango da kiroldegian.

■ **17:15ean.** Judo erakustaldia eskainiko dute kiroldegian.

#### Ekainak 2, asteazkena

■ **16:30ean.** Mahai-teniseko topaketak egingo dituzte frontoian.

#### Ekainak 3, osteguna

■ **17:00etan.** *Patinetan: jolastu eta kirola egin.* Frontoian elkartuko dira.

#### Ekainak 4, ostirala

■ **18:00etan.** Udaletxeko zine aretoan, *Bienvenidos a Belleville* pelikula eskainiko dute.

#### Ekainak 5, larunbata Eskola Kirola eguna

■ **09:30ean.** Futbol partidua jokatuko dute Pello Errota Ikastetxean. Asteasuko taldea, Zizurkilgoaren aurka ariko da.

■ **11:00etan.** Saskibaloitxapelketak.

■ **11:30ean.** Haurren arteko ginkana izango da.

#### Ekainak 6, igandea.

#### Kirolari ateak zabalik eguna

■ **10:00etan.** Kiroldegiko instalakuntzen erabilera librea izango da.

■ **11:00etan.** Ciclo Indoor saioa frontoian, gazte eta helduentzat.

Inskrizioak kiroldegian egin beharko dira, ekainak 4a bitarte. Doan izango da.

Euskal sukaldaritzaren errezeta ezagunenak  
*José Castilloren* eskutik

EUSKARAZKO LEHEN SUKALDARITZA BILDUMAREN 3. alea

berriarekin eskaintza berezia

Aureko bi aleak ez badituzu eskuratu, eskatu orain.  
Hirugarren alearekin batera jasoko dituzu.

EGIN ESKAERA ekainaren 11 baino lehen  
www.berria.info  
harpidetza@berria.info  
943-30 43 45

AUKERA EZAZUL  
BUTXERIAK  
berria

Laguntzailea:  
FAGOR  
www.fagor.com

# Artisau lanen erakusleiho izan da herriko plaza

**Leitza** » Kultur Aroaren baitan, XXXII. Azoka Berezia egin zuten herenegun; gaur Iztuetaren hitzaldia izango da.

## ERREDAKZIOA

Leitzako Kultur Aroak aurrera jarraitzen du. Asteburua IKA euskaltegiaren urteurrenako ospakizunekin eta mendi irteerarekin hasi zuten, eta artisau azokarekin amaitu. Izan ere, herenegun goizean egin zen Leitzako XXXII. azoka berezia.

Jendeari jaikitzen laguntzeko, goizean goiz gaiteroek diana jo zuten. Garai horretarako ari ziren jada artisauak beraien postuak atontzen, herriko plazan. Ordu gutxi beranduago ireki zituen atean azokak. 49 lanbide ezberdin eta 100 eskulangile bildu ziren bertan. Euskal Herri osotik gerturatutako artisauak topatu zitezkeen bertan: larrua lantzen zutenak, zizelkatzailak, kristalarekin lan egiten zutenak, errementariak, arotzak, jostunak...

Artisauen artean, leitzarrak ere izan ziren, esaterako, Okile taillerrekoak eta Liñu Putzu taldekoak.

**Gaur, Josu Iztuetaren hitzaldia** Bidaiari tolosarrak, *Euskaldunak Ameriketan* izenburupean, hitzaldia eskainiko du gaur arratsaldean. 20:00etan, Aurrera elkartearen izango da jardunaldia.

1980an, Nairobitarrak autobusa hartu eta mundua zeharkatzeari

## » KULTUR AROA

### Ekainak 1, gaur

■ **20:00.** Josu Iztuetak hitzaldia eskainiko du *Euskaldunak Ameriketan* izenburupean, Aurrera elkartearen.

### Ekainak 2, bihar

■ **20:00.** 1512 Nafarroaren konkista dokumentalaren aurkezpena eta solasaldia. Angel Rekalde izango da hizlari, Aurrera elkartearen.

### Ekainak 3, etzi

■ **20:00.** *Euskal mitologia; jentilak, lamiak eta orantzaroa* hitzaldia, Amuntxi Aranaren eskutik. Aurrera elkartearen izango da hau.

### Ekainak 4, ostirala

■ **20:00.** Pagoen mugarraketaren zergatia eta historia azalduko dute Trepalariek. Hizketaldia Aurrera elkartearen izango da.

■ **00:00.** Makulu Ken taldearen afro-musika kontzertua eta ondoren DJa, Torrean.

### Ekainak 5, larunbata

■ **18:00.** Musun Bordaren aldeko festa: Euskal Herria kantari. Herriko plazan izango da jaialdia.

### Ekainak 6, igandea

■ **19:00.** Organo emanaldia izango da elizan.

ekin zion Iztuetak, Angel Ortiz eta Manuel Mokoroarekin batera. Ordutik modu batera edo bestera hainbat eta hainbat erreallitate eza-gutu ahal izan ditu.



Herenegun goizean, 49 lanbide ezberdin ikusi ahal izan ziren Leitzako plazan ospatu zen Azoka Berezian. SARA GOMEZ



## Trikuharriak ezagutzeko txangoa

**KIROLA** • Leitzako Mendibil mendi taldeak antolatuta Iruso inguruko trikuharriak bisitatzea joan ziren 50 bat lagun. Itzuliaz gozatzeko lagungarri gertatu ziren eguraldia eta Jose Luis Huarte, Kazo eta Joxe Migel Elosegiren azalpenak. Kazo-k itzuliaren ardura hartu zuen eta Elosegik aspaldiko urte hauetan eginiko ikerketen berri eman zuen. Leitzaldeko mendi alde hauetan, lan handia egin du, eta horren ondorioz, topografia eta toponimia lanak egiteaz gain, trikuharrien inguruan aurkitutako eta ikerketa ezberdinak ere egin ditu. Bestalde mendi taldearen iritiz, «bikaina» izan zen irteera, alde batetik, ikasteko moduko ezagutzak jaso zituztelako eta bestetik, orain arte eginiko irteera jendetsuena izan delako. HITZA

## Martxelo Otamendi 'Egunkaria auzia'z mintzatuko da gaur

**Lizartza** » Betiko lekuan, 20:00etatik aurrera, auziaren ibilbideaz eta ondorioez hitz egingo du 'Berria'ko zuzendariak.

## ERREDAKZIOA

Hilabete eta erdi inguru igaro da Espainiako Auzitegi Nazionalak *Euskaldunon Egunkaria* absolbitu zuenetik. Bide batez, Martxelo Otamendi, Joan Mari Torrealde, Iñaki Uria, Txema Auzmendi eta Xabier Oleaga *Egunkaria*ko itxiera kasuko bost auzipetuen kontrako frogariek zegoela ebatzi zuen.

Egunkaria auziaren ibilbideaz eta bere ondorioetan azalpenak emateko asmoz, gaur Martxelo Otamendi *Berri*ko zuzendariak



Martxelo Otamendi 'Euskaldunon Egunkaria' zenaren zuzendaria. E. EZEIZA

hitzaldia eskainiko du, Lizartzan. Hizketaldia betiko lekuan izango da, arratsaldeko zortzietan.

Prozesu luzea izan zen *Egunkaria*rena, eta Euskal Herrian nahiz nazioartean oihartzun handia izan zuten.

Honen bestez, azken epaiaren arabera, *Egunkaria* ixteko erabakia Espainiako Konstituzioaren aurkakoa zen eta, adierazpen eskatasun eskubidea dela eta, kazeta itxi aurretik beste aukera batzuk bazueden.

**Gidariak** behar dira dokumentazioa eta balijak banatzeko.  
Postu finkoak erakunde publikoetan.  
Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

**Lan publikoetarako** zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenuerako langileak behar dira.  
Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

**Telefonistak/harreragileak** behar dira eraikin publikoetarako.  
Postu finkoak.  
Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40



## E Elkarrizketa

ANDER ALTUNA Txirrindularia

# «Bat aukeratu beharko banu pistaren alde egingo nuke»

**Zizurkil** » Jubenil mailan dabil Caja Ruraleko txirrindularia. Aurten denboraldi bikaina darama eta pistan garaipen asko eskuratu ditu.

## ENERITZ MAIZ

Ander Altuna (Zizurkil, 1992) txirrindulari gaztea denboraldi bikaina ari da egiten bi gurpilen gainean. Orain errepidean dabil, baina negu partean pistan ibiltzen da eta denboraldi honetan garaipen ugari eskuratu ditu. Azterketak bukatu ostean, eta selektibitatea gainean duela, gurekin hitz egiteko tarte bat hartu du.

**Noiz hasi zinen talde batekin bizikletan ibiltzen?**

Villabonako Irrintzi Taldean, zortzi urterekin hasi nintzen bizikletan ibiltzen. Asteburuero joaten ginen lasterketak korritzera, hemen, Tolosaldean, edo Goierri.

**Zergatik aukeratu zenuen txirridua eta ez gehiengoak bezala, futbola edota pilota?**

Hasieran futbolekin eta pilotan ere ibiltzen nintzen, baina azkenen bidez bizikleta aukeratu nuen. Aita ere bizikletan ibiltzen zen eta arreba ere ibiltzen eta horregatik aukeratu nuen.

**Baina orain Goierriko Caja Rural taldearekin ari zara korritzen. Zer dela eta?**

Infantil mailan, Irrintzi Taldean hiru txirrindulari bakarrik geratu ginen. Hemen inguruan Tolosa edo Ordiziako taldeak genituen aukeratzeko eta azkenean, Ordiziakora joan ginen. Hauekin harreman hobeagoa genuelako.

**Eta orain zenbat zaudete taldean?**

Aurten 14 txirrindulari gaude taldean. Oso harreman ona daukagu

guztien artean. Gainera, errepidean, pistan eta zirklo krosean garaipenak lortzen ari gara.

**Taldekideak elkarrekin entrenatzen duzue?**

Ikasketekin zaila izaten da bat egitea, baina ahal dugun guztietan batera geratzen gara.

**Noiz hasi zinen pistan ibiltzen?**

14 urte bete arte errepidean bakarrik ibiltzen nintzen. Lagun batzuk pistan ibiltzen ziren eta ni ere animatu egin nintzen. Errepideko denboraldia martxoan hasi eta abuztua-iraila bitarte edo izaten da. Neguan, errepiderako prestatzeko pista egoten da. Hala ere, aurten arte, inoiz ez naiz hain ondo ibili. Aurten ondo entrenatu naiz eta garaipenak lortu ditut.

**Orain errepidean baino emaitza hobea lortu dituzu pistan?**

Bai, horrela izan da. Orain errepideari baino gehiago begiratzen diot pistari.

**Ez da hain kirolez aguna. Badaude zure adineko txirrindulariak?**


Gipuzkoa mailan, neguko sarian 30 bat txirrindulari ibili gara lehiaztzen. Euskadikoan, berriz, berrogeita hamar bat edo izan gara. Ez da errepidean bezain beste, baina azken urteetan goraka doa pistako txirrindularitza.

**Erraza izan al da pistan ibiltzen ikastea?**

Ez, denbora behar da. Teknika ikasi eta hartzten joatekoak bere denbora eskatzen du.

**Zein da pistako denboraldia?**

Azarotik otsailera izaten da. Eta



E. MAIZ

gero, Espainia mailako probak, ekainean eta uztailean izaten dira.

**Pistan garaipen mordoak eskuratu duzu. Zeintzuk izan dira?**

Neguko Sarian zehar hamar garaipen lortu ditut eta bigarren geratu naiz sailkapen nagusian. Eta modalitate guztietan garaipen bat lortu dut. Gipuzkoako txapelketan ere, bigarren postua eskuratu nuen sailkapen nagusian. Gero, Fenioux France trophy-n (Burdeos, nazioartekoa), sailkapen nagusian lehen postua lortu nuen. II. Trofeu Palma de Mallorca, hirugarren geratu nintzen sailkapen nagusian eta pistako Euskadiko Txapelketan, lehen postua eskuratu nuen Asier Unanurekin batera sailkapen nagusian.

**Kanpoko probetan ere ibili zarete: Palma de Mallorca, Burdeos...**

**Zer nolako esperientzia izan da?**

Esperientzia polita izan da. Euskadiko selekzioak kanpora joateko aukera eman digu. Gainera esperientzia hartzera joatea espero genuen eta agian probak bukatu gabe geldituko ginelako ere pentsatu genuen eta azkenean, probak irabazi eta guzti egin ditugu.

**Astebururo izaten dituzu probak?**

Negu partean pistan astebururo izaten ditugu. Neguko Sariako Donostian eta Tafallan izan ditugu. Burdeosera ahal dugun guztietan joaten gara.

**Taldean ala gurasoekin mugitzen zarete?**

Gurasoekin eta taldekidearen gurasoekin. Taldean pistan ibiltzen garen bi bakarrik gaude eta normalean gurasoekin mugitzen gara.

**Nola moldatzen zara ikasketak eta txirrindularitza aurrera eramateko?**

Ja ikasturtea bukatu dut. Orain selektibitatea dut. Orain behintzat, ikasturtea bukatuta entrenatzeko denbora gehiago izango dut.

**Zein duzu gustukoago, ikastea ala bizikleta?**

Bizikletan ibiltzea. Ikastea derri gorrezkoa da eta egin beharra dago. Askotan entrenamenduak alde batera utzi beharra daude.

**Aurrera begira, bizikleta uzteko asmorik bai?**

Ez, momentuz ez. Afizionatuen mailan zaila izaten dela aguantatzea esaten dute. Pare bat urte egin eta nazkatu egin zarela, ikasketak eta mailan mantentzea zaila

delako. Baina saiatu egingo naiz zer edo zer egiten.

**Orain errepideko izango duzu abuztua bitarte.**

Azterketak direla eta, ia hiru aste entrenatu gabe egon naiz. Baina orain, uztaileko lehen asteburuan den Espainiako Txapelketari begira, denboraldiaren bigarren zatian hasiko naiz. Euskadiko selekzioak ia seguru hartu nau eta Espainiakoan ea aurrean ibiltzea lortzen dugun.

**Pista eta errepidea. Biak egiten jarraituko duzu?**

Momentuz biak egiten saiatzen naiz eta hemendik aurrera ere horrela saiatuko naiz. Baina gero, bietako bat aukeratu beharko banu, pista aukeratu nuke.

**Bakoitzak bere eran entrenatzen duzue?**

Entrenatzaile bat dugu eta txirrindulari bakoitzari, egunero-egunero zer egin behar dugun jartzen digu.

**Zer esaten dizute lagunek?**

Animatzen saiatzen dira. Hala ere, arrarora egin zaie parrandan ez ateratzea entrenatu egin behar dudalako edo lasterketak daukadalako.

Jada urtebete eskolapiotako lorategian! Mila esker zuen konfidantzagatik



Koldo Mitxelena kulturunean egindako agerraldiaren irudia. HITZA

## «Haurrak herriko eskolan mantenduko ditugu»

**Larraul**» Eskola Txikien aldeko apustua egiten jarraituko dute herriko gurasoek Hezkuntza Sailak ezer egin ez badu ere.

### ERREDAKZIOA

Pasa den ostiralean gizarte eragile desberdinek Eskola Txikien aldeko agerraldia burutu zuten Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean. Bertan Eudel-eko, Euskal Herriko zein Eskola Txikietako gurasoen elkarteetako, Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeko, Gipuzkoako Berritze gune eta sindikatuetaiko ordezkariak izan ziren. Eragile hauek guztiak Larraul, Zubietako eta Itziarko hezkuntza proiektuak irailan bertan

martxan jarri ahal izateko «elkarriketarako bidea luzatzeko» eskatu zioten Hezkuntza Sailari.

Aipatu behar da, era berean, azken hilabeteetan hiru hezkuntza proiektu hauek Legebiltzarraren babesa jaso dutela, PSOEK izan ezik alderdi guztien aldeko bozkekin. «Babes hau oso garrantzitsua da hezkuntza proiektu hauei bul-tzada emateko. Hala ere, Hezkuntza Sailetik ez da, momentuz, aurrera pausorik eman nahiz eta Larraul, Itziar eta Zubietako ordezkariak horretan saiatu ez dute bilera bakar bat lortu», argitu zuten. Hori dela eta, eta «nahiz eta egoera hau den», gurasoek Larraul, Itziar eta Zubietako ikasleak irailan «euren herri eta auzoetan ikasten mantenduko» dituztela argitu zuten.



**ikasle ohi aipagarria,  
ikasle aipagarria,  
fabrikazioko ikasle aipagarria**

**8. EDIZIOA IMH SARIAK**

enpresa babesleak:

  
**DANOBATGROUP**

  
**ETXE-TAR**

  
**25 SARIKI METROLOGIA**  
Abiadura Inerziazko Aplikazioa

  
**MAPFRE SEGUROS**

enpresa kolaboratzaileak:

**ALCORTA FORGING GROUP**  
DPH  
ENGRANAJES GRINDEL  
GORATU  
IBARMIA  
ILS

**IMS CONSULTORES**  
INDUSTRIAS ALGA  
JUARISTI  
LAIP  
PIERBURG  
SISTEPLANT

**Proposa ezazu aurtengo ikasle ohi aipagarria: [www.imh.es](http://www.imh.es)**

IMH, azkue azkua 1 - 28670 Elgoibar - [imh@imh.es](mailto:imh@imh.es) - [www.imh.es](http://www.imh.es)

# Gatikoaetxea

## Familia

ZURE FAMILIA EDONOLAKOA DELA ERE





0€



euskaltel  
zuretzat

**FAMILIA PLANA**  
ZUEN FAMILIAKO TELEFONOEN ARTEKO DEI GUZTIAK

MINUTURO

0

zentimoren truke

Finkoa ▶ Mugikorra / Mugikorra ▶ Mugikorra / Mugikorra ▶ Finkoa



**zuntzOptikoa**

**Deitu 1717 telefono-zenbakira**  
[www.euskaltel.com](http://www.euskaltel.com)

Guztizko ondorio ordaintzeko mugikorra bat duzun ZuntzOptikoaekin. Hantzeneko bezeroentzat eskirik da Familia Plana. Telefono guztiak kontu berarekin erabiltzen dira. Euskaltel-ekin. Eragilearen konexio: 15 zent. 30 karga. Finkoa eta Mugikorra guztiak batera alda ezin dira. ZuntzOptikoa Euskaltel Hantzenarekin. Bezeroentzat bakoitu da mugikorraren PSKak, 24 orduzko trukeko konpromisoa. Mugik. 100 000.



E **Emaizak****PILOTA****Elgetako Txapelketa****KADETEAK**

Anartz Olano (Aurrera)	22
Bereikua	13

**Añorgako Txapelketa****KADETEAK**

X. Jaunarena-M. Hernandezena	22
Garaio-Alduntzin	12

**ALEBINAK**

Jon Lezea-Salaberria	16
Balardi-Arizmendi	4

**Federazio Torneoa**

Jon Jaunarena	22
Matute	0

**Lizarrako Txapelketa****INFANTILAK**

Sagastibeltza L.-Sagastibeltza. E.	17
-	18

**Nafar Jokoak****BENJAMINAK**

J. Eskudero-N. Eskudero	18
Club Natacion	14

**Mattin Sukuntza-M. Zabaleta**

Oberena B	18
-----------	----

**INFANTILAK**

X. Zubiria-L. Galartza	18
San Miguel E	5

A. Eskudero-A. Garziarena	18
Zugaralde C	11

J. Goikoetxea-M. Eraso	18
Oberena F	6

**FUTBOLA****Erregional Ohorezko Maila**

Tolosa CF-Mondragon	0-0
---------------------	-----

**SAILKAPENA**

1. Zarautz (72 p.); 2. Aurrera de Ondarroa (71 p.); 3. Pasajes (68 p.); 4. Tolosa CF (58 p.)

**TXIRRINDULARITZA****ESPAINIAKO KOPA****JUNIORRAK**

1. Dorleta Eskamendi (Tolosa CF)

**AIZKORA****URREZKO AIZKOLARIAK, LEHEN MAILA**

Anjel Arrospeide	22:21"
Senosiain	27:09"

\*Finala Nazabalen aurka jokatu du Arrospeidek, hilaren 5ean, Azpeitian.

**23 URTEZ AZPIKOAK****Saralegi**

Ohian Larretxea 9:20"

\*Finalatik kanpo geratu da leizarrak. 7:39"

**ARRAUNA****EUSKADIKO TXAPELKETA,****SENIOR NESKAK**

1. Getaria 16:32"

2. Pasai Donibane 16:40"

3. Zumaia 16:42"

4. Tolosaldea 17:22"

**SOKATIRA****640 KILOKO EUSKAL HERRIKO****TXAPELKETA, LEHEN JARDUNALDIA**

1. Goiherri A 6 puntu

2. Mutriku 5 puntu

3. Areso 3,5 puntu

4. Getxo 2 puntu

5. Goiherri B Puntu1



## Whusu-Sanda ikuskizuna

**VILLABONA** • Olaederra kiroldegian Wushu-Sanda ikuskizuna antolatu zuten iragan ostiralean. Eskualdeko kirolari ugari elkartu ziren ringaren gainean, Olaederra eta Izarra taldeak Villabonan izan baitziren.

Ikuskizuna 100 lagun inguruk ikusi zuten kiroldegian. Lehiak desberdinek berriz denetik eduki zuten. Borroka mixto bat ikusteko aukera ere egon zen iragan ostiraleko jaialdi berezian. A. IMAZ

## IV. Emakumea Pilotari Eguna ospatu dute

**Irura** » Pilota jaiaren barnean, Gipuzkoako Partaidetzako III. Txapelketa Herrikoia jokatu zen.

**ERREDAKZIOA**

Iragan larunbatean ospatu zen Iruran IV. Emakumea Pilotari Eguna. Bertan jokatu zen Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak antolatzen duen Emakumezkoen Gipuzkoako Partaidetzako III. Txapelketa Herrikoia ere.

Gipuzkoako 11 herritako bikote bana aritu ziren lehiari. Finalera Getaria eta Donostia iritsi ziren. Lehia estu baten ondoren, donostiarrek irabazi zuten Txapelketa.



IV. Emakumea Pilotari Eguna ospatu zuten iragan larunbatean Iruran. HITZA

Hirugarren postuan Hernani gelditu zen eta laugarren Oiartzun.

Txapelketaz gain, 80 emakume inguru paletan ibili ziren, frontoia

6 gunetan banatu ondoren. Jai giroan izerdia bota ondoren, bazkari goxoaren txanda iritsi zen. Trikitilariak eta paleta saio inprobisatuak

ere izan ziren bazkalostearen. Egurnari amaiera 20:30ean eman zitzaion, autobusaren itzulerako bi-dea hastearekin batera.

**H Hilberria****ENRIKE ZURUTUZA ALTOLAGIRRE**

«Hizkuntza da herri bati nortasuna ematen diona eta bere nortasunari eusten diona»



**uztarria**

Uztarria Komunikazio Taldea

AZPEITIA  
2010eko ekainaren  
1a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA  
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40  
ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900



Aresoko taldea bikain aritu zen larunbatean herritarren aurrean. HITZA

## Euskal Herriko Sokatira Txapelketaren jardunaldia jokatu da Areson

**Kirolak** » 640 kilotan hirugarren postua lortu du etxeko taldeak; lehia Goiherri A taldeak irabazi du.

### ERREDAKZIOA

Eguraldia lagun, iragan larunbatean Lur Gainekoko Euskal Herriko Sokatira Txapelketako lehia jokatu zen Areson. Herriko plazako belardian 200 lagun inguru elkar-tu ziren.

Sei taldek hartu zuten parte: Bizkaitik, Goiherri A eta B, Gaztedi

eta Getxo hurbildu ziren; Gipuzkoatik Mutriku eta Nafarroatik herriko taldea, Areso.

### Tiraldirik luzeena Mutriku eta Goiherri Aren artekoa

640 kiloko lehen jardunaldia 17:30ean hasi eta 20:00etan amaitu zen. Bitarte horretan, lehia bi-ziak ikusteko aukera egon zen, adibidez, arratsaldeko tiraldir luzeena, Mutrikuk Goiherri Ari irabazitako-koa: 8 minutu eta 19 segundokoa. Aresok Gaztediri irabazitako-koa ere azpimarratzeko-koa izan zen: 6 minutu eta 13 segundokoa.

Eguneko tiraldirik motzena be-

rriz, Goiherri B eta Getxoren arte-koa izan zen, 21 segundotakoa.

Lehen jardunaldi honetako az-ken sailkapena honela gelditu zen: Lehen postuan Goiherri A; bigar-rran Mutriku; hirugarren eta lau-garren postuetan Areso eta Gazte-di, berdinduta; bosgarren Getxo eta seigarren Goiherri B.

Hurrengo saioa ekainaren 12an izango da, Martiartun (Bizkaia). Heldu den astean atsedena izango du Euskal Herriko Sokatira Txapelketak; Mosnangen, Suitzan, izango den nazioarteko torneoan parte hartuko baitute bertako hainbat taldek.

## Ikasturteko kirol emaitzekin laskoraindarrak «oso gustura»

**Tolosa** » Areto futboleko alebin neskak, Unai Iribar, Ruben Lekuona, Asier De Anta eta Aitor De Anta txapel-dun gelditu dira.

### ERREDAKZIOA

Ikasturte osoan kirol lehiaketa ez-berdinetan parte hartu ondoren, Gipuzkoako Txapelketak bukatu

dira. Hona hemen Laskorain Ikas-tolakoek lortu dituzten emaitzak:

Areto futboleko, alebin nesken taldea Gipuzkoako txapel-dun geratu da, kadete neskena berriz txapel-dunorde.

Atletismoko emaitzekin ere «osogustura» agertu dira Ikastola-koak. Alebin mutiletan Unai Iribar 500 metroko proban txapel-dun gelditu zen eta 1.000 metrokoan txapel-dunorde. Ruben Lekuona

berriz 60 metroko proban txapel-dun irten zen. Ane Larrea, pisuan hirugarren geratu zen. Infantil mailan, 1.000 metroko azken txan-pan, Joseba Olaetxea eta Jone Go-mez aritu ziren.

Txirrindularitzari dagokionez, Unai Iribar hirugarren sailkatu zen. Duela bi aste-ko Arrantza Txapelketan berriz, Asier De Anta eta Aitor de Anta anaiak txapel-dun geratu ziren.



Maite Aranalderen herritarrek prentsurrekoa eskaini zuten atzo. A. IMAZ

## Hiru egun egon dira Maite Aranalderen berririk gabe

**Ibarra** » Euskal preso larunbatean eraman zuten Fresnes-eko espetxetik; Poitiers-en dagoela jakin zuten atzo arratsaldean.

### A. IMAZ

Maite Aranalde ibartarraren senideak eta lagunak «oso kezkatu-rik» agertu ziren atzo. «Larunbat goi-zean, 05:00etan, Fresnes-eko es-petxetik eraman zuten. Bertako euskal preso politikoez azaldu di-gutenez modu txarrean gainera». Hiru egunez ezer jakin gabe egon ondoren, atzo arratsaldean Poi-tiers-eko espetxean aurkitzen dela jakin zuten. Espetxe honetan aur-kitzen den emakumezko preso ba-karra dela ere esan zuten senideek, «ez baitago ez sozialik ezta poli-tikorik ere».

### Kronologia

Maite Aranalde maiatzaren 20an, ostegunean, atxilotu zuten Lapur-din, Mikel Garikoitz Karrera eta Arkaitz Agirregabiriarekin batera.

Lau egun inkomunikaturik edu-ki ondoren, 24an, epailearen au-rrera eraman zuten ibartarra. ETArekin lotura izatea egotzita Fresnes-eko espetxera bidali zuen epaileak.

29an, iragan larunbatean, Fres-nes espetxeko euskal presoek sala-


tu dutenez, 05:00etan Aranalde-ren ziegara sartu zen polizia. «Frantzia hau ez da normala. Es-petxe aldaketak 06:00etatik aurre-ra gertatzen baitira. Modu txarre-an eraman zuten eta funtzionario batek Poitiers-eraz zaramatela esan zuten. Hau ere ez da normala, ber-tako espetxean, emakumeentzat 12 plaza bakarrik baitaude».

### Salaketa

Euskal preso ibartarraren inguru-koek «oso kezkatu-rik» hitz egin zuten atzo. «Euskal preso politiko-er aurka denak balio duela berrito ere agerian gelditu da. Elkartasun keinuak ere legez kanpo utzi nahi dituzte. Hori iragan astean Ibarra-n argi gelditu zen. Herriko aginta-rien isiltasun konplizea ere hor dago. Bakeaz eta giza eskubideez hitz egiten dute baina herriko gaz-te baten eskubideak behin eta be-rriz urratzen direnean ez dute ezer esaten».

«Errepresio uholde honi aurre egiteko eta euskal preso politikoei elkartasuna azaltzeko», Herrera-rako espetxera irteera antolatu dute asteburu honetan. Ibarra-n bildutakoek bertara joateko deial-diarekin bat egin zuten.

Bestalde, Manex Castro billabo-natarra herenegun espetxez alda-tu zuten. Valdemoron aurkitzen zen. Atzo iluntzean sendiak ez ze-kien nora eraman zuten.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1.687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 118. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Hitzaldia

■ **Leitza.** Josu Izuetaren *Euskaldunak Ameriketara* Aurrera elkartean 20:00etan, Kultur Aroaren baitan.

### Mendi irteera

■ **Villabona.** Ekainak 12 eta 13an Gavarnie-Tucarroya-Monte Perdido - Lago Helado - Cilindro - Casco - Gavarnie mendi irteera egingo du Aizkardi mendi elkarteak. Izen-ematea, elkartearen ostegunetan 20:00etatik 22:00etara, edota [aizkardi@aizkardi.com](mailto:aizkardi@aizkardi.com) mailera idatzita edo 649-717182 telefono zenbakira deituta.

### Azoka

■ **Tolosa.** Tolosa Berdez lore eta landare azoka berezia aste osoan zehar: Triangulo, Euskal Herria plaza, plaza Berria, plaza Zaharra eta Berdura plazan, zein dendetan.

### Hitzaldia

■ **Tolosa.** Paulo Izuetaren *Euskal Herria euskalduntzea eta euskal curriculum* 20:00etan Lizardin.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Moraut, R. Zabalaretza, 1.943 67 36 49.  
■ **Leitza.** Larraia M. I., Elbarren, 95, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## A Agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

agurrak

Mesedez,  
ekarri  
argazkia  
bi egun  
lehenago.

agurrak



Alegia, Ibarra, Irura, Lezo, Lizartza, Villabona eta Anoeta bertako dantza taldeak izan ziren herenegun Dantzari Txiki Egunean. S. GOMEZ

# Kukuaren etorreraren zain

**Anoeta** » Bihar botako dute herriko jaiak iragartzen dituen txupinazoa, aurretik, hala ere, izan da zer egina.

### ERREDAKZIOA

Bihar hasiko dira Anoetako Korputz jaiak. Txalapartariak iragarriko dute kukuaren etorrera lehenik, eta gero botako dute txupinazoa, 19:00etan. Kanpai hotsek lagunduta kuku jaisterakoan hasiko dira, hortaz, ofizialki herriko jaiak. Aurretik izan dituzte ekitaldiak, hala ere. Koadrilen Eguna larunbatean izan zuten, eta herenegun Dantzari Txiki Eguna ere ospatu zuten. Alegia, Ibarra, Irura, Lezo, Lizartza, Villabona eta herriko bertako dantza taldeetako gaztetxoek hartu zuten jai egunean. Eguna borobiltzeko, gainera, Oskorriren *The Pub Ibiltariaren* emanaldia izan zen Loatzo Musika Eskolaren laguntzarekin.

Aipatu bezala, bihar izango da txupinazoa. Ondoren Loatzo Musika Eskolako trikitilarien kalejira izango da eta 20:00etatik aurrera sardina jatea izango da plazan Kuku Elkartearen eskutik. Eguna amaitzeko Irune eta Itsaso trikitilarien erromeria egongo da herriko plazan.



Dantza taldeen emanaldia plaza txikian izan zen eguerdian. S. GOMEZ

**TOLOSAKO INMARRULADA IKASTETXEA**

Rondalea 44/46 Tolosa  
www.inmarrulada.com  
9430 73629

**HEZIKETA ZIKLOAK**

<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gizarte Integrazioa</li> <li>• Haur Hezkuntza</li> <li>• Osasun Dokumentazioa</li> <li>• Diagnostikoa</li> <li>• Eradioterapia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erizaintza laguntzailea</li> <li>• Farmazia teknikaria</li> </ul>
------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------

ATE IREKIAK  
MAIATZAK 31tik  
EKAINAK 11ra